

MAIATZAK 15, LARUNBATA

Lilularik ez
kontzertua
Iñaki Salvador hirukotearen eskutik

Sutegin, 20:00h

Iñaki Salvadorrek 25 urtez egin zuen lan pianista bezala Mikel Laboarekin. "Sei" izeneko diskatik aurrera bere ondoan izan zuen eta akordeoiarekin eta sintetizagailuarekin ere lagundu zuen kontzertuetan eta grabazioetan. Mikelek beragan konfiatu zuen zenbait kanturen konponketa musikalak egiteko. 2008ko abenduan, Laboaren heriotza gertatu ondoren, Errenteriako Musikastekoak Iñakirekin harremanetan jarri ziren Mikelen musikaz bere ikuspegi partikularra landu zezan hirukote formatoan. Proposamen hori 2009ko maiatzean estreinatu zen eta Mikelen zenbait kantu ezagunekin Iñaki Salvadorrek egindako bertsioak bildu zituen, beti ere jazz oinarri hartuta, "Lilularik ez", "Izarren hautsa", "Txoria txori", "Baga, biga, higa".
Pianoa: Iñaki Salvador. Bateria: Hasier Oleaga. Kontrabajua: Javier Mayoz. Maiatza honetan argitaratuko da kantu hauek bilduko dituen diska.



Babeslea:



Usurbilgo Udala

Laguntzailea:

Noaua!!

www.noaua.com

Sarrerak: Lizardin 8€ aldez aurretik, 10€ egun berean (takilan).

JexuxArtze

KulturElkarateak

antolatuta...
maiatzeko ekitaldiak